ZIRIKADEAK

LAUAXETA

Bengarai nor dan eztakigu. Ardurarik bere ez. Baña Baztan-Buru-Batzaŕa nor dan dakigun ezkero, aren itzai gagoz. Bengarai oŕek esan euzan itzak, eztira itz bigunak, batez-bere lekaidientzako. "Txaŕi" eta "doloŕ" batzun dirala atzaldu leban.

Gai ori erabilteko asmoz nor geyagoko mintzaldi batera dei-egin dautse Bengarai oŕi. Baña gixonak dan gixonak egiŕen eztauna oŕek egin dau. Baztan-Buru-Batzaŕa'ri erantzun dautso itz oŕeik eztirala berak esanak, eta zuzendu biaŕekuak zirala. Bestiak ostera ostikada ona emon dautse: "La Voz de Guipŕzcoa,,'tik aŕtutako itzak dirala, ¿bai?, eta izpaŕingi ari eskatu dagijola itzoŕein zuzentzea. Lapuŕak be ezeztuten dabe egiñiko gatxa.

卐 卐 卐

Larunbateko "Jagi-Jagi" etzan agertu. ¿Zer dala-ta? Jauŕlarijak esango dausku. "Ley de Imprenta" edo deritxon araudi batzuk dauz argitalduten danaren aldez. Baña Bizkaya'n eztago olako lagirik.

Emen gura dabena egin daroe ta kitu. ¡Eta ezetoŕan txaŕa geure asterokua! ¡Aren zigoŕkadeak eztira makalak!

卐 卐 卐

Lope de Aro edo dana dalako oŕek, Bilbao'n daukon gixirudi-euŕian lorak ikusi doguz. ¿Zegatik dozak lorok? itaundu dautsogu bati, baña erantzunik eztausku emon. Atxuri'ko okulu baten daukogu Aro 'ko Lope ori. Lope edo odoloste andija baŕdiñak dira.

Rioja-aldeko notiñak dira oŕen guŕtzaliak. Euren zaindari deunaren jayak ziralako-edo lorak jaŕi eutsezan, "Agiŕemota" edo olake abixena euki ba-leban, ez ei-zan egongo Atxuri'ko okulu oŕetan. Orain Mirasol txaidera eruango ei-dabe. Edeŕto dago. Ara ta ona, eztedila bakian egon.

卐 卐 卐

Eztaukot, astelenetan agertzen dan izpaŕingi petrala eztodalako erosten. ¿Prieto eukiko ete-dogu agintari-buru? ¡Bai zera! Prieto oŕek buru andija dauko baña ezin eratu ixan dau gobernurik. Orainguan azke gagoz, bestela galdubak gengozan. Dauskun goŕotuaz. Orain Azaña dabil gobernu eratzale.

Bestiak baño obia ixango yaku Azaña au. Eta "radical,,'ak agintaltza onetan alde ba-dira, eŕezago geure lanak egingo doguz. "Gestora" zoritxaŕeko onek ken-duten ba-dauskubez, bestelako poza ta deskantsuba eukiko dogu.

卐 卐 卐

Prieto gobernuba-eratuten ibili zan ordubetan, Bilbao'ko sosolisto ziztriñak deŕu eutsen. "Eta zer egingo dogu abeŕtzalhakaz?" Arin baña ariñago gura eben geure auŕka asi. Azkatasuna abuan darabilen oneik laŕi egozan geure ala asi aŕte. Orain erdi negaŕez dabiltz. Laiseka be buruba makuŕtuta dabil.

卐 卐 卐

Prieto'k gobernuba eratuko ebalakuan, Bilbao'ko txotxolo batzuk pozaŕen saltoka asi ziran. Oturuntz ikeragaŕija ixan zan Artxanda'n. Arein poza, santzuak eta txaluak. Bizkai'ko jaube ixateko asmoz-edo egozan.

¿Orain, baña, zer esango dabe?

卐 卐 卐

Epalza nor dan ba-dakigu. Izpaŕingi onetan idazten eban eta abeŕtzale zintzua zala uste leuguban. Baña beriala aldatu zan. Txaketeru bat baño etzala igaŕi leben danak. Orain "Diario de Navarra" deritxon zoritxaŕeko oŕijan idazten dau. Lelokeriak baño eztauz idazten.

卐 卐 卐

Bultzijan etoŕan Cadiz'ko gaste batek txantel bat emon euskun: "Aquí, en nuestra patria España" iñuen. Eskian etoŕan eta ezer ezkeuntzan emon Euzkadi'n gengozalako. Atzaldu geuntsonian Euzkadi zer zan eta zer gura dogun, geure gixontxubak erantzun euskun berak ezeuakala abeŕirik. Gixon kokoloen asmuak baño ez ei-dira abeŕijak.

¡Cadiz'kua ixan biaŕ, olako astokerijak esateko!

卐 卐 卐

Shanti Meabe'k idatzi eban lenguan: Urkitzu jaunaren idaztijak eta auntzaren korotzak baŕdiñak dira. Usain txaŕa dauko idazki onek.

"El Liberal,,'ean etoŕan idazki ori ta amaikatxu baŕe egin leuguban. Zimauŕa satza ta bekorotzak saŕi be saŕi auŕkituten dira izpaŕingi oŕetan.

卐 卐 卐

¿"La Constancia" andereak eztakaŕ ezeŕ ala? Estulaz ei-dago. Zumaŕaga'n mezea abestu biaŕ ćau ta ixilik dago orain. Aŕautzak jatia onena dala jakingo dau, bestela geuk orixe aolkatuko geunskijo.

DEUNEN BIXITZA

Padura'tar Andoni deuna

Deun onen ugutz-izena Perdiñanda zan. Portugal'ko Lisboa uriburua da bere jayoteŕia. Andiki-artekoak ziran bere gurasoak. Albontsa bakaldunaren gudari-ozteko buruzagi aita. Ezin egikeala zaitu beaŕ ainbatean semearen azkuntza-ta, Lisboa'ko eleizburuko jauparien artera eroan eban. An gaitu zan jakintza-bidietan; baita be onbidean sendotu.

Asia zan orduako gizarteko zorakeriak goŕotatzen. Arinkerietatik igesirik bakartasunean gogoaren zaintzara zaleu zan. Amabost urte zituaneko, Augustin deunaren izenpean Lisboa'an bilduta egozan eleizgizonen araura jaŕi zan; arein jantzia artu eban. Aŕigaŕiak ziran, benetan, gastearen zentzuna, otoitzetarako zaletasuna ta bere joera zeatza. Guztien eredu izan zitekean bidez. Bere sendikoak egioezan ikertaldiak gogorako nasbide zituala-ta, Coimbra'ko abadetxera joateko baimena eskatu eban. Kezka guztiak beregandik aldendurik Jaungoikoari egokiezan arloai begira jaŕi zan soilki.

Gogoko iñarkun gartsuetan bederatzi urte egin zituanean, eriotzaren bidez zipopatza (martirioa) irabazi eben bost lekaide pantzeskataŕen gorpuak eldu ziran Apirka'tik Coimbra'ra ta au zala-ta, Perdiñanda'ri be Josu-Kisto'ren maitasunez bere odola ixurtzeko gogo bizia biztu yakon Eta 1221'gaŕen uŕtean Pantzeskataŕen jantzia artu eban. Ordun baztertu eban bere ugutz-izena ta andik auŕerakoan Andoni izan zan bere lekaide-izena.

Apirka'ko ziñausleak Kisto'gana irabazteko eginbeaŕetara joateko baimena eskatu eutsen buruai. Emon eutsoen baimena ta itxasoratu zanean gaitz zital batek jo eban. Negu osoa Apirka-aldeko itxas-baztaŕean egin ondoren, España'rantz abiatu ziran. Ekaitzaldiak, o r d e a, Sicilia'ra bultzatu eban ontzia eta Mesina-urian luŕeratu beaŕa izan eban. Egun areitan Asis'en batzaŕ orokaŕa antolatzekoak ziran pantzeskataŕ lekaideak. Pantzeska deuna bera be batzaŕ oŕetara zanaren albista iritxi zan Andoni'ren belaŕietara ta uri atara zuzendu zan.

Abegi ona egin eutson Pantzeska deunak. Maiteki aŕtu eban. Etziran, oŕatio, beronelan jokatu beste lekaide buru batzu. Txatxartzat eta ezer gitxirakotzat epaitu eben, nunbait, ikusi ebeneko. Eŕukiak biotza igitu-ta, Graziani lekaide buruak Monte Paulo deretxon lekaretxera eroan eban. Basarte josian egoan lekaretxea. Ondo baño obeto eritzi eutson Andoni'k egite oni. Bakearen eta bakartasunaren ain zalea izanik, gogokoa izan yakon eremuan egotea. Etziran egon, oŕatio, luzaroan, autspean ezkuturik Andoni'ren doai aŕigaŕiak.

Jauparitza artu beaŕ ebala-ta, Forli'ra bialdu eben aldi baterako. An bildu ziran baita be domekataŕ gazte zenbait. Egun batez, bazkal ostean, onbidera begira jaŕi nayean, alkaŕen aŕtean itzal lik antolatzeko eskatu eutsen buruak lekaide gasteai. Uko egin eben danak. Arlo gaitzaren bilduŕ ziran, ba. Andoni'ri agindu eutson itzegiteko. Bai gartsu, kementsu ta egoki mintzatu beaŕ. Andoni'ren doai bakanen agirian, aŕiturik lotu ziran entzule guztiak eta bereala teolojia ikastera jaŕi eben bere gañetikoak. Auŕerakuntza aŕigaŕiak egin zituan laburki ta Pantzeska deuna berak lekaide gaztien irakasletzarako autu eban. Bolonia'n, Montpeller'en, Tolosa'n eta Padua'n jardun zan luzaroan irakaste-lanetan.

Irakasle jakintsua zan Andoni. Etzan, oŕatio, izle makalagoa. Lenengoz egin zituan itzaldien ondorenean, alderdi guztietara baŕeatu zan bere izena. Lepoetaraño betetzen ziran eleizak ari entzun nairik. Biurtze aŕigaŕiak egin zituan bere itzaldi gartsuen bidez. Bialduen geroztik ez da izan, ez iñun, ez iñoiz, ez egiñetan, ezta be mintzaketan berau bezaingo gizon altsurik.

Ain zuzen ere, etziran bakaŕik itzak ixuri ta ereiten zituanak. Alatzak be saŕi ta ugari egin zituan. Gizonen gañetiko egite aŕigaŕien bidez, amaika sineste-gabeko bildu zituan Kisto'ren baŕutira.

Bein batean mutil gazte batek autortu eutson, asaŕeak eraginda, bere ama oin -ukaldi batez jo ebala. Biziro itxusikatu eutson Andoni'k egite lotsagaŕia. Damuz biotza igituta urten zan gaztea autorkundetik eta artez-artez etxera joanda oña eŕe eban. Gaztearen damua jakin ebanean Andoni'k, joan yakon maiteki ta oña osatu eutson; naikoa zala biotzeko damua obena parkatzeko, esanaz.

Beste batean, baŕiz, gizon eraildu baten eriotz-obena egotzi eutsoen bidegabe Andoni'ren aitari, ta eriotzara epaitzeko zorian Lisboa'n egoala, alatz baten bitaŕtez epaikariai agertu yaken batbatean Andoni auzietxean. Ilaren gorpua eroateko epai -aretora agindu eutsen gizonkiro areiri. Gorpua aurkeztu eutsoenean diñotso: "Jaiki zaitez eta esan nire aita izan danentz zure erailtzale". Zutitu zan gorpua eta abots ozenez autortu eban iltzalearen izena.

¿Izan al-dau egundo zinautsak onen antzeko astintzalerik? Egun batean itzaldian erabili eban gaya izan zan Josu-Kisto'ren gizatasuna agiri-agirian dagoala eukaristian. Ziñausle batek entzun eutson eta, bere burua sineskaitz egiñaz, eskatu eutson iñoanaren egia alatz baten bidez erakusteko. "¿Zein alatz nai dozu?"—itandu eutson Andoni deunak. Arek erantzun eutson: "Nik nai neuken alatza auxe da: nire mandoa goseti dagoanean, auŕean jaŕitako lastoari uko eginda, ogi deunaren auŕean auspeztea". Andoni'k jardetsi eutson: "Euki egizu, ba, mandoa iru egunen buruan ezer jan gabe". Alan egin eban eta iru egunen buruan auŕean jaŕi eutsoen garagaŕa usaindu be barik ogi deunaren auŕean belaunikatu zan mandoa.

¿Nork zenbatu Andoni deunak egin zituan alatz ugariak? ¿Nork somatu Kisto'ren artaldera bildu zituan sinesgabeak? Ulertu be ezin leikeana da ogeta amasei urteko gizontxo argal eta indarge arek ainbeste lan egitea ta ainbeste obendari biurtzea. Josu-Kisto'ren irakatsiak ereiñez zearkatu zituan Italia osoa, Parantze eta beste zenbait lateŕi. Ldui osoan baŕatu zan bere izena.

Kisto'ri eutson maitasunak aizatzen eban. Bein bere etxean artu eban lagun bat egun batzuetarako. Ikusmiñak zirikatuta, lagun onek gela-baŕuan zer egian Andoni'k ikusi nai izan eban. Gela-ateko giltza-zulotik begiratu eutson. An egoan Andoni deuna Josutxu umetxoa besoetan ebala, umetxoari laztanga samuŕean etengabe. Ainbestekoa zan Josu-Kisto'rentzako bere maitasuna! Eta semea samurkiro maitatu ezkero, aren ama be era berean maitatu beaŕ.

Jaungoikoak jakinarazo eutson ba-yatorkola eriotz-ordua. Padua'tik uŕean egoan baso-elizatxo batera aldendu zan eta, an alditxo bat egin ondoren, il-ordua gañean ebala igaŕi ebanean, lekaretxera biurtu zan. Ikurtonak artu zituan eta "O gloriosa Domina" abestuz 1231 gaŕenean, ogeta amasei urtedun, il zan.

Kistaŕen artean gizon eta emazteki gitxi dira deun oni bizitzako laŕialdi ta estuasunetan laguntza eske aŕenga ta zotinga ez doakiozanak. Il da gero be alatzak aneika egin ditu alde guztietan Jaungoikoak, deun ospatsu oŕen bitaŕtez. Eŕiak maitasun andia dautso. Eŕikoya da, benetan, deun au. Luzaroan Padua'n bizi izan zalako deitzen dautsoe Padua'taŕa.

A.'TAŔ T.

Sahagun'dar Jon deuna, lekeroti agustindarra

Sahagun'daŕ Jon deuna. Sahagun'en jayo zan 1419'gaŕen urtian. Gurasuak, umetzeka zirala-ta, otoi-bai-otoi egin leutsaen goiko Jaunari; eta goiko Jaunak otoyak entzun eta umia emon leutsen, Sahagun'daŕ Jon deuna.

Urtiak auŕera zer ixango zan umetandik iragaŕi eban Jontxu'k; umetaldia bilduta, aŕi-gane, edo tontoŕ-gane igon, eta baranotako umiai edasten leutsen, eta Urtzi Jauna maŕe biaŕ lebela, eta bijotz-bijotzez maŕe be, irantsi.

Aldi atan ikasten ziran ikaskixunak ikasteko, gurasuak uriko irakastetxian saŕtu leben ikastun. Auŕerakuntza aundijak egin leuzan Jon'ak; ikaskixunetan auŕeratuten ba-zan, baña, are ta auŕerago joten leban g iko Jaunaren bidetaz. Otoyak, buru-ilkintzea, txadonetarako saŕija, okeŕbidetatik igesten urduritsuba ixan zan.

Osabea leban Burgos'ko gotzañaren laguna; eta ara, osabearekin, gotzañagana bidaldu leben gurasuak. Burgos'ko gotzañak Jon ezagun egin eta zan ekanduntsu ta jakintsuba igaŕirik, jaupaŕitu egin leban, eta bixibiderako, oi zan letz, opidiak emon leutsazan. Jon'ak baña ainbeste opideren jaube ixatia ta opide bakotxari legokijan lekuban ez bixiŕia bidezko etzala-ta, bai baŕiz Doibatz-lagiz atxiñekua, opide gustijak jarein leuzan, eta gotzañaren axubaz Urtzi Jaunaren arlua landuten asi zan. Agate-deun ixeneko txadonkide egiñik, beronetiko gainkintxubakaz bixiŕen zan txiro ta naiko; eta Jaun-Goikua'ren itxa eŕijai edasten, eta sutsu ta kementsu be edasten, asi zan. Lasteŕtxe, Salamanca'n ziran bekaitz, aseŕe, goŕoto, iguin eta etsaiketeak entzunik, Salamanca'ra jun zan ango eŕitaŕai okeŕbidiak akaŕ egiŕen. Ixan, be, Salamanca'n etsaiketa itxela zan aldi atan: eŕi osua alde biŕara erdibiŕuta leuken Monroitaŕak eta Manzanotaŕak. Manzanotaŕ anai bik Monroi'taŕ Miren, —emakume uzuba ixena irabazi dau—gudamutilez jantzi ta atzez-atz jaŕain jaken erailtzale bijai; eta atzeman egin leuzanian, bijok bere eskuz burumoztu egin leuzan, aŕtu burumotzak, Salamanca'ra aztamakil-erpiñian eruan, eta bere semien ilobijan garaikunde-zantzo jaŕi. Egikun uzu onek sendi arein aŕtetako etsaikuntseak are ta jarijagotu leuzan; eta eŕi osua, alde batera edo bestera egiñik, erio-aspeŕkuntzez ganburutu. Ara, ba, jun zan Sahagun daŕ Jon; eta txoniztokijetara igonik, gogoŕ-bai-gogoŕ gaiztesten leutsezan euren goŕotuak, alkaŕ ezin ikusijak, bekatxak, eta eraiŕketeak, Arako baten, txonitza entzuten eldu yakazan Bartolmai-deun'eko lagunak; eta Jon'en subaz ta itz etoŕijaz geldurik, euren aŕtian ixena emon eta opidia, edo ikasbide-opidia, aŕtu legijala eskatu leutsaen. Emon, be, emon leban Jon'ak ixena, eta ikaspide-opidia aŕtu; irakaskixunak osotu leuzan, eta irakasle-eskuba jadetsi. Irakastundegi atan baña, Jaunaren itza edatsi ta galbidiez atxin akaŕ egiŕeko nai leban añako erasorik elebala eguaŕturik, ikastundegija ta oipidia jarein eta jaupari aizkidiarenian aŕoztu zan. Amaŕ urte ekin leutsan edestiari. Gogoŕ-bai-gogoŕ agiraka egiŕen leban; goŕotuak, etsaikuntseak, galbidiak gaiztesten leuzan, ziŕu andija jasorik. Gexotu zan gero, eta epaikuntzea be egin leutsan; gatxaldijan, baña, eskañitza egin leutsan Jaunari, osatuko baldin ba-zan, lekaide agustindaŕ egingo lebale bere buruba.

Osatu zanian, Jaunari egin leutsan eskañitza bete leutsan. Agustindaŕa zala, lekaide-ekandunak jadesten zintzoro lan egin leban. Landeŕtasuna utz-utza, siñesmena itsuba, solu-garbiŕasuna gotzondaŕa, otoya gau ta egun, Doibatz-Otoyaz ta txonestoki-biaŕkunaz zietz-zietza, buru-ilkintzaz zoŕotz uzuba. Edastia, baña, eleban galetsi; bai zera; gogoŕago ta erasuago ekiŕen leutsan. Okeŕbidiak, galbidiak, etsaikuntseak, oben gustijak, bai andikijetan zirala, bai eŕiŕaŕetan, baŕa txadon gixonetan, be, gogoŕ ta zoli akaŕtuten leuzan. Bein, andikijak eta aberatsak langilien eta menbekuen ixerdija erazo ta sari zuzena emoten eleutsela-ta gogoŕ egin leban; baŕa eŕijetako alde bat eta besteketeak irasoten lebezala esan be. Alba'ko atxindarijak bere burubagaŕik esandakotzat aŕtu leban arako baten txonitza. Eta beste andikijetaz ageŕi, "gauŕ, bai, eroso azkatu dok, azkatu, be, eure miña"—esan leutsan Jon'i—; "eta azaŕi-utz eta adeitzeka jardun dokanezkero, oŕetako bideres baten ordain-saŕija emongo ba'leuskat, irabazi duana baño eleuskadan emongo". Jon'ak, baŕiz: "txonizlarijen biaŕkixuna eztok eztikeriŕan itz egiŕia, Josu-Kisto'ren egijak, nai ta mingotsak, diran letz, iraustija baño. Eta nik, ixan, be, iñortxori irain-ixaterik etxuat gura ixan; neure biaŕkixuna betetia, baña, bai, gura be. Jauna goyan dok; eta beragandk etzinduten nok, etzin, be". Eta atxindarijari aguŕ egin, eta Salamanca'ra egin leban. Atzindarijak, baŕiz, jopubak bidaldu leutsazan bidera, atzeman eta bidez erailtzeko aginduz. Atzeman leben jopubak, bai, atzeman, be; eta erailtzer-zirala, bai zaldijak, baŕa zaldi-ganekuak, be, gustijak geldi ta loturik geldiŕu ziran, esku-zirkiñik be ezin leikiela egin. Eta dardarixuka ta ixuikaraka, Jon'i dei egin leutsen, azkeske. Azketsi leutsen Jon'ak, eta atzera euren nagusijarenera igoŕi. Au, ordian, gexotu egin zan; eta, gexuaz eta jazo zanaz aŕiŕurik, garbaŕu, ta Jon'i dei egin leutsan; eta autoŕ, men eta apal, Jaunagandiko eŕukija eskatu. Azketsa emon leutsan Jon'ak, osatu egin leban, eta onu egokijak esanik, berera atzera egin leban.

Onetara bixi ixan zan Jon, Jaungua'ren lagijaz zintzo, goŕoto-etsaikuntseak ibiŕu, ta gentzatu, ta gixatzaŕak onbideratuten. Eta deun-mail-garaira igonik, il zan Salamanca'n 1479'gaŕeneko bagila-11'gaŕenan. Bere jaya amabigaŕenan ospatuten da.

Geidia maŕe daigun zintzoro, kistaŕ on maŕe, gustijakin gentzatsu ta gustijakin jasankoŕ ixanik, eta goiko Jaunak geuri, be, emongo dausku betiko sarija donokijan.

M. B. S.

EUZKOTAR UMIEN ALDEZ

Tabako - orria

AMAYA

"Tabakuen keya bezela gure bizitza dua."
Alarcón.

Tabako-oŕia mintegian erein beaŕ da ta neurkin laukotu bakoitzean gramo erdi baño geyago ez da erein beaŕ.

Egunian-egunian ura egin eta belaŕ txaŕak kendu beaŕ zaizka.

Landaratxoak zerbait asitzen diranean, andienetik aundienera mintegitik atera ta izango diran lekuan aldatu.

Neurkin bat eta irurogei euneurkin (1,60 m.) zabaldun salak egin beaŕ dira ta sail abetan, larogei cm. aldenduta landarak aldatu.

Sail biren aŕtean neurkin bat zabaleko txaide bat laga, nekazaria ibiltzeko, ta landariak puskatu gabe, egin biaŕ zaizkan lanak egin al izateko.

Tabako landarea ogeitamaŕ edo beŕogei cm. gora danian, baŕeneko oŕi biak kendu egin beaŕ zaizka, euriaz eta luŕaz zikintzen diralako ez dute balio izaten da.

Ila bi baŕuan landareak lorea ematen du, eta lorea kendu egin beaŕ zayo, baita ere kendu beaŕ zaizka lorien inguruan soŕtu diran oŕi txikiak.

Au egindakoan, emezortzi, ogei edo ogeitairu oŕi berdinakin gelditzen da tabako landarea.

Beaŕ dan bezela eldutzeko, tabako-oŕiak anei ta sortzireun, edo anei ta bederatzireun gradu bero biaŕ izaten ditu, ta gure luŕaldean iru ilabete edo eun egunen baŕuan artzen ditu.

Oŕilaren azkeneko egunetan erein ezkero dagonilaren azkeneko egunetan elduta dago.

Auxe da gure abeŕian tabako-oŕia aŕtzeko sasoirik onena.

Tabako-oŕia eltzen danean ebaki egin beaŕ da ta legorlekura eraman.

Landareak legorlekura eraman eta legoŕtu ditezen ixeki egin beaŕ dira, banaka-banaka ta poliki-poliki, alkaŕ jota puskatu gabe, oŕi puskatuak gutxi balio dute ta.

Tabako-oŕia legortzeko lekua aizetsua ta euriak jotzen ez duana izan biaŕ du.

Gauŕ egunian baseŕi danak daukaten ganbara ona da.

Beŕogei edo beŕogeitabost egunian legortzen da tabako-oŕia.

Tabako-oŕi ona izan ba'da zazpi landarek kilo bat tabako oŕi ematen dute batez bezte.

Legortzian tabako kartenetik oŕiak kendu egin beaŕ dira, aundienak aundienakin, eta txikitxoagoak txikitxoagoakin ipiñi eta gero ogei edo ogeitabost oŕiko sortak egin, lotu, piloak egin, tabako lantegira eraman eta saldu.

Ara nik azaldu euzkotaŕ umiei beren soroetan erein nai ba'dute tabako-oŕia zelan aŕtu leiken gure baseŕietan.

On izango litzake lan au egiten asiko ba'litzakez gure baseŕitaŕak.

Len ez egitia ez da zioa orain ez egin nai izateko. Lan beŕietara, ta dirua irabazteko bide on beŕietara beti leyoak irekita euki nai ditugu.

Oraindik ure gutxi dala iñork ezekian gure abeŕian txikoria zelan erein eta landutzen zan. Baña gauŕ egunian ni bizi naizan eŕiko nekazariak etxe eŕentak txikorien diruaz ordaintzen dituzte.

Tabako-oŕiaz beste oŕen-beste gertatu leike.

卐 卐 卐

Ereiten eta landutzen ikastia nai det noski, ez ordea zuek tabako-oŕia eŕetzen ikasterik, osasunentzat kaltegaŕia dalako.

France'taŕ Nicot jakintsuak aurkitutako pozoni bat bai du tabako-oŕiak, eŕderaz "nicotina" izenduna.

Guztiz pozoni indartsua da. Nicotina utzezko tanta bat txakuŕ bat iltzeko gai da.

Lenengoz tabako-oŕia eŕetzen dutenak izaten dituzten buruko miñak eta laŕiak nicotinak sortzen ditu.

Gero ere, eŕetzaleak oitu dirala uste izan aŕen, tabako-oŕiak beti gaitz dagio gorputzari, buruari, biotzari, birikari, estaŕiari, bizkolarari ta eŕetzale gaztietan ezuŕari ere baita.

Osasunentzat bezin kaltegaŕia da sakelerako ere tabako-oŕia eŕetzeko oitura.

¿Nai al dezute jakin amasaspi urtedun asi ta irurogeitamaŕ uŕte bitaŕtean, egunian egunian txoŕta bat tabako-oŕi eŕe duan gizonak ketan zenbat diru bota duan? Gutxienez amabi mila laurleko.

Au entzunda lengo batian mutiltxo batzuek aŕitu ta gelditu ziran, eta diru oyek danak "Aŕendataria" bazkunari ematen ez zijuazela esan ziraten.

AŔITOKIETA.

SE RECOMIENDA POR SI SOLO EL ALIMENTO INSUPERABLE
ALAR-ONENA
Olo aŕautzagilientzat eta txitak azteko. Utsik ematen ez duten jatekuak: Aragi aŕain eta azuŕ-irin "Alar Onena".
Especialísimo para gallinas ponedoras y cría de pollitos. Resultados garantizados Harinas de carne, pescado y hueso "Alar Onena".
Maria J. Esnaola
Miracruz, 21 — SAN SEBASTIAN — Teléfono 12.014
¡ALERTA! EXIGID SIEMPRE LA MARCA "ALAR ONENA"

EUZKELDUN TXAPEL OLA
Boinas Elósegui
TOLOSA


PARIS

EUZKADI - ROMA PARIS-ZIAŔ.—Euzkadi'ko bidezkari batzuk Paris'era etoŕtzeko zirala bai-nekijan; ez baña abeŕtzaliak ziranik, bai-zirala ta Euzkadi-Roma taldekuak eurak zirala susmetan neban aŕen. Lorila-23'gn. gaberako jatetxia ta aparija gertauta eukiteko idatzi eustan Bilbao'tik baten batek, ez eustan esan baña nortzuk ziran; etzan, baña, gatx ori igertia 34 lagunentzat aparijori gertetako esan eusten ezkero. Etziran agertu gure abeŕkidiok 26'gaŕenerafte-edo. 28'gnian. iŕandu neban etoŕi ete-ziran eta Lissieux'an ebilzala erantzun eusten: bidezkari sutsubok neuk aguŕtu barik alde egingo ete-eusten Paris'tik? 29'gnian beste zeregin askok lotuta neukien eta uŕutizkin-bidez iŕandu neutsen nundik nora ebilzan eta noz alde egiŕeko asmua ete-eben. Nortzuk ziran jakin nebanian eta uŕengo goizian Paris'i aguŕ egiŕeko asmua ebela, Angleterre-jatetxeratu nintzan. Gernika'ko Gabiola'ren belbil aundi edaŕa eguan ate-auŕian, Euzkadi'ko ikuŕin zuri-goŕi-orleya goi-goyan ebala; gure bidezkarijok euren bijotzetako zintzotasuna agerturik geyenak txadonan ziran Goiko-Jauna artu ta beren laguntasunaz Abeŕirantzeko bidia asteko. Txorijak baño pozago etorzan txadonetik Goiko Jaunak euren bulaŕetan erein eban poztasunaz; euzko-anaitasunan goxarija artu ta gerturik ziran Paris itzi ta Abeŕiratuteko. Belbilera igon ziranian ¡Gora Euzkadi azkatuta! zaratatsubak entzun ziran; eta Jaungoikua zaindaritzat ebela eta ikuŕin abeŕkoya zuzendaritzat aguŕ egin eusteben emen gelditzen gintzan euzkotaŕ euzkel-dunoi. Eurak euzkeraz egin eusteben, euzkeraz guk be eurai; euzkotaŕak ez geunke beste izkuntzarik erabili biaŕ geure artu-emonetan. Euzkadi azkatu gura badogu, lenengoz-edo gaizkatu biaŕ dogu geure euzkera-bidez.

Euzkadi-Roma taldeko bidezkarijok ondo zabaldu dabe Euzkadi'ren ezaguntza, Euzkadi'ko ikuŕin eta Euzkadi'ko izkerea edonun zabaldurik. Jaungoikuari Jaunkuarena emon dautse, eta Abeŕijari berari zor yakona. Urtzik eta Abeŕijak ordaindu dagikijela.

DONOSTI ABA PARIS'EN.—Donosti Aba gure eŕtilari ospetsuba be Paris'en ixan da; eta euzkel-abesti gozo-eztitsubak entzun eragin dauskuz "Revue Musicale" daun areto zabal edaŕian. Amaika txalo jo ebezan gure eresijak entzun ebezan eŕtilarijak. Abestijok abestuteko Eskualduna'ko abeslari batzuk egozan; baña 17 urtedun neskatila armeniaŕ batek be ezin obeto abestu euzan euzkeldun jatoŕak letz oguzirik. Zorionak Donosti Abari eta uŕenguan luzerotxuagorako etoŕi; eta ondo ixango litzake Zubizaŕeta jaunak derabilan "Schola Cantorum" edo olakoren bat ona etoŕtzia. Emen dabiltz eta udean oŕantz juteko asmua edo dabe "Mane rie des Cnanteurs da Croix du Bois'" ritxoen abeslarijak. Nire ta beste ask eritxiz eztabe abeslari onek gurien er be "balijo", ¿zegatik ba ez ekaŕi batzutarako gure abestalde ospets emengo antzoki batera geure abestijak geuriak ixan ez aŕen, gure abeslar beste iñok baño obeto abesten dakij erakusteko? Oin udan ezin leike ezer baña geruago udazkenian edo neguan egin biaŕ litzake. Ziuŕtzat daukat ela txindirik galduko: Paris ezta Sevi eta oin urtiak dirala Sevillaratu zira txindija galdu baño ezpaeben egin, etoŕiko litzakezanak txindija irabazi, tzutia aŕtu ta Abeŕijaren ezaguntza baldu egingo leukiez. Eŕtilarijok, dozu erantzuna.

EMAKUME ABEŔTZALE-BATZA Eunen bat lagun dira Gipuzko-Bizka neskamiak emen, eta Abeŕi'tik uŕun zanok eztabe beste asmorik Euzkadi Danok gurari batekuak dira; emen go "margarite" ta olakorik, emen dunak diran ezkero Euzkereari ta Eu kadi'ri bakaŕik begiratzen dautse. Ori "margariŕek" emen urte bi egingo bez "emakumetuta" gelditukо lit emen Parantze ta Euzkadi baño beste eleukie edo-entzungo ba-ta. Neskame keldunok alkartu dira ta Euzko-Emak -Abeŕtzale-Batza egin dabe eta al-dab Euzkadi'ri lagunduko dautsie.

EUZKO-IKASLIEN ASMUAK tagoz lo ikasliok be. Paris'ko Iŕadi aundijetara jo dabe, iŕadi-bidez euzko tijak erazagututeko. Garióaren len egunetan "Radio-Paris,,'ek entzun era go dauz gure abesti, oŕura ta edestija egon euzkotaŕak: aŕatsaldeko lenengo dubetan ixango ete-dan ala bostak ruan eztakit ondiño; baña bai ziuŕ egingo dala. Euzko-Ikaslien lendakari Goyenetxe ikasle gaste ta argijak diñost eta egingo da. Ez aiztu Parantze ordubete auŕeratuta gabilzala, beraz go bostak orko laurak dirala.

ESKUALDUNA'REN ASMUAK Onek be bai-dabiltz. Udarako dabe edeŕ bat Orkr abeŕtzaliak ontzat dabela deritxat. Arana-Goiri'k Bayo ikasi eban ikastetxian Irakasliaren go takī bat jaŕi gura dabe. Oŕkasbeŕo tzale sutsubak oŕela asmatu dau eta eurok bakaŕik, orko abeŕtzaliak be la duko dautsiela deritxat. Asmo edeŕa, mo goralgaŕija.

URTZAGO.

INGI BILDEGIA
Papelería del Oria
MORAIZ'TAR JOSEBA MIRENA
Teléfono, 154. TOLOSA

"BIYONA" LUGINTZA-ETXALDIA (Irun'en, Ilno. 313'an.)
2.000 "Leghoru"-oluak aŕautza-iminŕiak zenbatzeko abijakaz. Txiŕak ataratelo aŕautzak saltzia. Olaskotxu jayopaŕijak. Iru ilabeteko olandatxubak.

ERRIJETATIK

EA

Iragaŕiŕa zan legez, igande pasa danian juan gintzan Ereño-zaŕera. Eŕiŕik uŕten giñan Emakume aldra bat geure txistularija gendubala, baña eguraldijak itxura txaŕa eukan. Eurija-aŕen auŕera juan gintzan Bazteŕtxu aretan abeŕtzaletasuna zabaldu nairik.

Uste dogu Gernika'ko Txara-Txara'ko mendigoxalien laguntasunaz neure guraŕija loŕtu dogula, ez gura geunken neuŕijan, baña asijerea emon dautsogu.

Lontzi abeak egin eban itzaldija langorik ezta entzuten egunero. Bere itzaldi sakon eta samuŕaz bidungu euzan bijotzak. Abeŕtzaliontzat atsegingaŕijak ixan ba-zan, abeŕtzale eztiranentzat onugaŕija.

Gu beintzat pozik giñan Ea'ko gaśtiak goraldu euzalako. Eskaŕak. Gurutze-ane" geure adizkide zintzua be antxe aguŕtau geban. Geure txistularijak oso txalotubak ixan ziran. Ondo erakusten dabe zelako irakasle ona dauken. Ikasliak dira bai ira kasliaren agerkai onenak.

Txara-Txara'ko mendigoxalioi. Emen be ba-dago apuŕ baten biaŕ ixana, emeko gastiak sutu dadixan. Ia ikeŕtalditxu bat egiŕen dozuben. "Ogoñope,,'k bere eŕikuai berotasun laŕegi emon ete dautse? Aguratxu batek esan eban iñor etzala juan ikustian: Ogoñope'k karkaya asko ta aŕautza gitxi.

JAYOTZA. — Kobeaga'taŕ Garbiñe'k ixan daun semiari Aitoŕ euzkeli-ixena jaŕi dautse. Zoŕijonak berari ta umiaren aŕa -ama bitxi ixan ziran Miren eta Josu'ri.

Emen da azteŕketea ondo eginda Benedicto'taŕ Julen. Agiŕe'taŕ Andoni bere emen dogu. Ondo etoŕijak.

ITZIAŔ.

MENDATA

OTURUNTZA. —Ila onen 18'gaŕenan Mendata'ko Euzko-jayetara etoŕi eta bazkari edeŕ-edeŕa jan nai dabenak, 7,50 laurleko ordaindu ta jan leikie. Bilbao'n Euzko-Gastedija'n, Garaikaŕ Batzokijan, Mendata'ko Euzko-Batzokijan aŕtu daikiez txantelak ila onen 16'gaŕena baño lenago. Mendigoxaliak, Emakumiak eta abeŕtzaliak igande oŕetan gustijok Mendata'ra eldu biaŕ zarie, emeko abeŕtzaliak ikeŕtu ta sendotuteko.

GASTE-BELU.

CARIDAD

En favor del obrero vasco Juan de Lartuondo

Hace unos días hicimos un llamamiento a la caridad de los vascos para paliar en lo posible la crítica situación del obrero vasco Juan de Lartuondo.

Hoy damos cuenta de algunos donativos recibidos, cuyo importe ponemos a disposición del desgraciado obrero Juan de Lartuondo.

Los donantes son:

Félix de Petralanda y Azkarreta, dos pesetas.

Redacción de EUZKADI, ocho pesetas.

Un lector de EUZKADI, cinco pesetas.

Administración de EUZKADI, tres pesetas treinta y cinco céntimos

BIBLIOGRAFIA

Revista Internacional de los Estudios Vascos

La entrega correspondiente al prim trimestre del año en curso de esta ap ciada y veterana publicación, que tanto contribuído a despertar la afición a los e tudios lingüísticos e históricos relativos nuestro país, contiene, como de costumbre, muy eruditos y variados trabajos. De e mología vasca tratan los de los señores Baehr, Giese y Urkixo. Es de especial i terés el breve comentario que el segun de estos filólogos hace a la etimología la palabra vasca "bilarrausi", propue por el doctor C. C. Uhlenbeck. Giese de echa la idea de que el nombre del "be rro" en euzkera fuera consecuencia del bú, y propone otra etimología, que acla ría, de aceptarse, la de algún otro vo blo vasco. Don Fausto Arozena estudia pequeño problema de historia guipuzko relacionado con una cláusula del testam to de Alfonso VIII, y en otro artículo titulado "El tratado de 1482 entre Gip koa e Inglaterra", reproduce en fotogra do un importante documento del Arch de Tolosa. Anuncia, de paso, que un jo jurista guipuzkoano, en un trabajo que tiene empacho en considerar como definit y bien merecedor de la gratitud del P Vasco, tratará de la personalidad que G puzkoa ostentó en el mencionado suceso.

Don Angel Irigarai analiza las palab vascas contenidas en una declaración de proceso de la curia eclesiástica de Irt Por su parte, el doctor Justo Gár continúa aportando datos para el Dic nario Vasco, y emite hipótesis etimoló cas acerca de los nombres vascos de p rentesco, que, aunque no las da con c rácter definitivo, servirán de base a fu ros debates e investigaciones.

Los donostiarras leerán con especial i terés en el citado número la traducci por Martín de Angiozar, de "El Subalte no", libro inglés acerca del incendio Donostia, que es inexplicable no se hub ra traducido antes.

Un trabajo de don Alfonso del Va Lersundi acerca del descubrimiento de p turas rupestres en el Palestina, la conti ción del "Gvero", de Axular, y del c mentario a los refranes vascos de 1596, como abundantes reseñas bibliográficas los señores Apraiz (Odón), Garmend Arozena, Urkixo y Odriozola, complet el volumen de 118 páginas que nos ocu

Como dato curioso del interés que en extranjero despiertan los trabajos relati a nuestro país, añadiremos que en uno los últimos catálogos de una librería París se ofrece una colección de la "R vista Internacional de los Estudios V cos" por el elevado precio de 5.000 fr cos, hecho sólo explicable por la difusi creciente de nuestros estudios y por la r reza de los primeros años de esta pub cación.

Pinturas, Esmaltes y Barnices de la casa
Thos Parsons & Sons
ACEITE DE LINAZA
"EL CABALLO"
Unico y exclusivo representante Jo guin de Gárate, Naja, 7. Tel. 16